**Espedientea: 2HI-070/15-P08**
**ERMUA**
Ermuko udal-mugarteko Artamendi inguruan lurrezko betelan bat egiteko Plan Berezia.

TOMÁS ORALLO QUIROGAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN BIZKAIKO HIRIGINTZA PLANGINTZA ATALEKO IDAZKARIAK

**ZIURTATZEN DUT** Bizkaiko Hirigintza Plangintzaren Atalak martxoaren 16an izandako 3/2016 bilkuran, besteak beste, honako erabaki hauek hartu zituztela, aho batez, kideen gehiengo osoa eratzen zuten bertaratutakoek:

**"I.- Lurralde-antolamenduaren arloan:**

**I.-** Ermuko udalerriko "Ermuko udal-mugarteko Artamendi inguruan lurrezko betelan bat egiteko Plan Berezia" espedienteari aldeko irizpena ez ematea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea betetzeari eta honako hauetara egokitzeari dagokionez: Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legearen lurralde-antolamenduko tresnak, eta Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanen gaineko Legea aldatzen duen uztailaren 16ko 5/1993 Legean adierazitako alderdiak. Honako hauetan oinarritzen da:

1.- Plan Bereziaren eremuak eta zabortegia Ermuko udalerriko Baso-lurzoru urbanizaezinean eta babes bereziko lurzoru urbanizaezinean daude. Aplikagarria den Plan Orokorra 2015eko maiatzean onartu zen, eta ez du jasotzen zabortegia lurzoru urbanizaezinaren bi kategorietako batean ere erabiltzea; beraz, erabileren egokitasunari dagokionez, kontrako irizpena ematen da.

2.- Plan Bereziaren eta zabortegiaren mugaketak ez datoz bat; beraz, alderdi hori zuzendu beharko da, Plan Bereziak ezartzen duen araudia zabortegiaren eremuari buruzkoa baino ez baita.

3.- Plan Bereziaren eta zabortegiaren beraren mugaketak Mallabiko udalerriko lurzoruan sartzen dira. Ildo horretatik, espedienteak aipatutako udalerriaren plangintzarekin bat

**Expediente: 2HI-070/15-P08.**
**ERMUA**
Plan Especial para un relleno de tierras en el paraje de Artamendi en el término municipal de Ermua.

TOMÁS ORALLO QUIROGA, SECRETARIO DE LA SECCIÓN DE PLANEAMIENTO URBANÍSTICO DE BIZKAIA DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO.

**CERTIFICO** que en la Sesión 3/2016, de la Sección de Planeamiento Urbanístico de Bizkaia celebrada el día 16 de marzo, se adoptó, entre otros, por unanimidad de los asistentes que conformaban la mayoría absoluta de sus miembros, los siguientes acuerdos:

**"I. En materia de Ordenación Territorial:**

**I.-** Informar desfavorablemente el expediente de "Plan Especial para el relleno de tierras en el paraje de Artamendi", del municipio de Ermua, en lo que respecta a su adecuación a la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, a los instrumentos de Ordenación Territorial de la Ley 4/1990 de Ordenación del Territorio del País Vasco y a los aspectos señalados en la Ley 5/1993 de Modificación de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los órganos Forales de sus Territorios Históricos en base a los siguientes aspectos:

1.- Los ámbitos del Plan Especial y vertedero se encuentran en Suelo No Urbanizable Forestal y en Suelo No Urbanizable de Especial Protección dentro del municipio de Ermua. El Plan General de aplicación, aprobado en mayo de 2015, no contempla el uso de vertedero en ninguna de estas dos categorías de Suelo No Urbanizable, lo que propicia el informe desfavorable en lo que se refiere a la adecuación de usos.

2.- Las delimitaciones de Plan Especial y vertedero no son coincidentes aspecto que deberá ser corregido en base a que la normativa que se establece en el Plan Especial se refiere expresamente al ámbito del vertedero.

3.- Las delimitaciones tanto del Plan Especial como la del propio vertedero invaden suelo del municipio de Mallabia. En tal sentido, el expediente deberá adjuntar la documentación

egin ahal izateko beharrezko dokumentazioa jaso beharko du. Horretarako, indarrean dauden honako hauek ezarritakoa hartuko da kontuan: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 63 eta 92. artikuluak; eta Premiazko Neurriei buruzko 105/2008 Dekretuaren 13. eta 14. artikuluak.

**II- Ingurune Naturalaren arloan:**

Ingurune Naturalaren arloan, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak 2016ko martxoaren 10ean emandako txostena hartu beharko du kontuan. Horretan, lotesletzat jotzen da honako hau:

- Betelan hori ezin da gauzatu, egun indarrean dagoen hirigintza-araudia dela eta. Hori aldatutakoan, Plan Bereziaren tramitazioak 2013an aldeko txostena jaso zuen betelanaren mugetara itzuli beharko luke. Ildo horretatik, hasierako proiektuan aurreikusitako landareztatzea ez ezik, zuzendaritza honek txosten horretan (kodea: OP-2013_079) eskatutako neurriak ere aplikatu beharko lirateke, eta Babes Berezikotzat katalogatutako eremua bere horretan utziko litzateke.

**II.** Espediente hau behin betiko onartzeko, eskumena duen organoari ondokoek egindako txostenak bidaltzea: Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Nekazaritza Zerbitzua eta Baliabide Naturalak, Ehiza Fauna eta Arrantza Kudeatzeko Zerbitzua (I. eranskina); URA-Uraren Euskal Agentzia (II. eranskina); Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza (III. eranskina); eta, Euskal Trenbide Sarea (IV. eranskina). Ziurtagiri horiek erantsita doaz."

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egin eta sinatu dut, bilkuraren akta onetsi baino lehen, Vitoria-Gasteizen, 2016ko martxoaren 16an.

precisa que requiere la compatibilización con el planeamiento del municipio mencionado considerando lo señalado en la legislación vigente (Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo en sus artículos 63 y 92 y Decreto de Medidas Urgentes 105/2008, artículos 13 y 14).

**II- En materia de Medio Natural:**

En materia de Medio Natural es preciso tener en cuenta el informe emitido el 10 de marzo de 2016 de la Dirección de Medio Natural y Planificación Ambiental en el que se señala como aspecto de carácter vinculante:

- No es posible la realización del relleno dada la normativa urbanística actualmente vigente. Una vez modificada ésta, la tramitación del Plan Especial debería volver a los límites del relleno sobre el que se emitió informe favorable en 2013, siendo de aplicación tanto la revegetación prevista en el proyecto original, como las medidas requeridas por esta Dirección en dicho informe (código: OP-2013_079) y dejando intacta el área catalogada como de Especial Protección.

**II.** Remitir al órgano competente para la aprobación definitiva del expediente los informes emitidos por el servicio Agrícola y el servicio de Recursos Naturales, Fauna Cinegética y Pesca ambos de la Dirección General de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia (Anexo I); por URA. Agencia Vasca del Agua (Anexo II); por la Dirección de Medio Natural y Planificación Ambiental (Anexo III) y por Euskal Trenbide Sarea (Anexo IV), que acompañan a la presente certificación."

Y para que así conste, expido y firmo, con anterioridad a la aprobación del acta correspondiente a esta Sesión, en Vitoria-Gasteiz, a 16 de marzo de 2016.

IDAZKARIA/EL SECRETARIO

Izpta./Fdo.: Tomás Orallo Quiroga